

Aretxagazeta

Aretxabaleta
1995eko apirilak 27

Urets iturria

Alderdien
hautagaiak

XVII.

Otala-Zelai

Kross

Herrikoia



Maiatzaren lehena, langilearen eguna

atxabaltarron aldizkaria
kalean ikusi ahal izateko
ezinbesteko kolaborazioa
eskainiko duzu.
Euskararen onerako
egin zaitez bazkide



Aretxagazeta Elkartea, Kultur-Etxea
ARETXABALETA
Tfnoa.: 79 01 05 - 151 postakutxatila

IZEN ABIZENAK:

.....

HELBIDEA:

TELEFONOA:

KUTXA:

ZBK.:

Aretxagazeta

Zer zentzu dauka zuretzat maiatzaren lehenak?

*Birginia Armentia
(Langilea)*

*Nik jai egun bat mo-
duan hartzen dut maia-
tzaren lehena. Gure
kontu gabiltzanez lanean
planteatu ere ez dut egin.*



*Aitor Uribe
(Langilea)*

*Niretako jai egun bat
da, baina lanera joateko
esaten badidate lanera
joango naiz.*



*Maite Mendieta
(Langilea)*

*Langileen eguna borro-
ka eguna bezala hartzen
dut. Langileen eskubideak
defenditu behar dira. Nor-
malean manifestaldietara
joateko ohitura daukat.*



*Francisco Javier Orrillo
(Langilea)*

*Aurten lan egingo dut
egun horretan. Hala ere
sekula ez diot egun horri
garrantzirik eman eta
manifestaldietara ere ez
naiz joaten.*



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultur sailak
diruz
lagundutako
aldizkaria



Aretxabaletako
Udalak diruz
lagundutako
aldizkaria


ESKUTITZAK

Korrikako tira-bira dela eta...

Korrikaren ospakizuna dela eta gertaturiko tira birengatik Euskaltegikoek emandako bertsioa dela eta, Murruxiko ere gertatutakoaren azalpen bat ematera behartua aurkitu da.

Azken ekitaldian bezala, Murruxikok euskara bultzatzea helburu duela, korrikaren kilometro erdia erosi zuen.

Korrikan parte hartu baino egun bat lehenago, Korrikako antolatzaileek, testigua zein puntutan hartu behar genuen adierazi ziguten, ondoren dagoen nota honen bitartez.



Gauzak horrela, Murruxikoko kide bati, zein tokitan, zein ordutan eta zein distantzia korritu behar zuen adierazi genion, egun horretan egin bezala.

Arratsalde horretan, Euskaltegiko bi irakasleei gertaturikoaren azalpena eman zitzaien. Haiak Murruxikoko errua ez zela izan onartu ondoren, ez dugu ulertzen nola gai izan diren horrelako gutun lotsagabe bat idazteko Murruxikoren aurka, inongo errurik izan ez dugunean.

Haien haserrea ulertzen dugu baina beren kexuak korrikaren antolatzaileekin argitu beharko lituzkete.



Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta. Tfnoa: 79 01 05, 151 postakutxatila.
Erredakzio-kontseilua: Marta Madinabeitia, Imanol Aginagalde, Miren Eraña, Josu Urkia, Arantzasu Abasolo, Xabin Arriola.
Publizitate eta erredakzio arduraduna: Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Aitor Antxia, J.J. Aretxaga, Iñaki Urreta, Loramendi K.E., Udala. **Banatzaila:** Josu Elexpuru. **Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da.
Lege gordailua: SS378 / 94

Aretxagazeta

Liburutegiak 30.urteurrena ospatu zuten

Liburutegiko 30. urteurrena ospatu zenetik egun batzuk pasatu dira. Hala ere ondo dago egin ziren ekitaldiei buruzko gogoeta bat egitea. Era desberdinetako ekintzak egin ziren, txontxongilo emanaldia, erakusketak, Lubaki Bandaren poesia emanaldia, Juan Luis Lekunberri eta Sarasua anaien kantaldia, e.a.

Liburutegiko arduradunen esanetan ekintza desberdinak eta politikak egin dira eta arrakasta handia izan dute. Esate baterako gaztetxo asko bildu zen txontxongilo emanaldian. Honez gain Juan Luis Lekunberri eta Sarasua anaiek eskaini zuten kantaldira ere lagun mordoa hurbildu zen.




Sarasua anaia kantari, Juan Luis Lekunberri pianoan lagundurik.

Ion eta Aitor Sarasua, Juan Luis Lekunberri eta Pepe Arregi izan ziren liburutegian "Fauna txiki bat bertso berritan" bertso kantaldia eskaintzen. Durangoko azokan kantatu zuten lehen aldiz. Geroztik hainbat ekitaldi eskaini dituzte han eta hemen.

Hamar bertso paper dira guztira kantatzen dituztenak. Bertso batzuk oso kritikoak dira, kazetariei buruzkoak adibidez. Baina gai desberdinei faunaren bidez osotasun bat eman nahi izan diote, hortik dator kantaldiaren izenburua "Fauna txiki bat bertso berritan". Horregatik bertso bakoitza animalia batekin erlazionatzen dute, arranoa, katamixarra, hartza, e.a.

Lubaki Banda



Lubaki Bandako hiru partaide, Garikoitz Berasaluce, Asier Serrano eta Iñigo Iruretagoiena.

Lubaki Banda idazle gazteen talde bat da. Garai bateko literatur banda gazteak falta zirela eta, taldetxo bat sortzea pentsatu zuten Horrela, gizarteari idazle gazterik badela adierazi nahi izan diote.

1993ko udaran sortu zen taldea eta ordu-tik 3 aldizkari eta maketa bat atera dituzte. Honez gain, hainbat errezital eman dituzte Euskal Herrian zehar.

Lubakietan gordetzen diren gazteak dira. Lubaki hitzak "lur ebakia" edo "trintxera" esan nahi du eta bertan idazten dituzte beraien lanak. Taldekoek adierazi digutenez "hitza sinbolikoa da, lan izkutu bat dago hor atzean baina gogorra eta egunerokoa dena".

Beraien helburua Euskal Herri osoko talde bat sortzea zen baina oso zaila da bileretan elkartzea eta horregatik momentu honetan gehienak gipuzkoarrak dira. Sei pertsonak osatzen dute orain taldea eta Donostian elkartzen dira.

Momentu honetan taldea ez dago hasiera batetan zegoen bezain indartsu. Horregatik etenaldi bat egitea pentsatu dute. Atxabantan eman zuten poesia emanaldia azkena izan zen.

Esan behar da, kolaboratzaile berriei irekita dagoen banda dela.

DOIKALSE

Elektroerosioa
Zuzendua

Poligono Basabe C-1-1
Aretxabaleta
Tfno: 79 82 44



HAIZEA AKEITEGIA

Mitarte kalea, Z/G
Tfnoa: 79 85 57

BENGOA URDAITEGIA

Bertako okelak eta
mortzilak

Durana, 9
Tfnoa: 79 19 79

Taberna berria izango da laster herrian

Batzuk ez dute hain begi onez ikusiko taberna berri baten zabaltzea; beste batzuek ordea, fenomeno!. Hala ere laster taberna berria zabalduko dute Julen eta Aitor atxabaltarrek. Bi mutil hauek Arlutz tabernan laguntzen aritu dira orain artean; Julenek 8 urte eta Aitorrek 7 urte eman dituzte bertan.

Tabernan ibili dira beti laguntzen eta jende gaztearentzat ondo prestatutako lokal bat behar zela pentsatu zuten eta horrela etorri zitzaaien taberna zabaltzeko ideia.

Lokala haundi samarra dela esan daiteke, 178 m² zituen baina insonorizazioa egin ondoren txikiagoa gelditu da; 150 m² gutxiagoa-behera. Tabernako ordutegi normala izango du baina gauetz 5,30ak arte zabalik izateko baimena izango dute. Era guztietako musika entzungo dela diote. Oraindik ez dakite taberna noiz zabalduko den baina maiatzean izango dela uste dute. Lehengo Pagaldai almazena ze-



Julen Barandiaran eta Aitor Zabala

goen tokian dago kokatua, garai batetan Olandixo baserria zegoen tokian.

Tabernaren izena pentsatzearekin nahiko buruhauste dute. Izen pilo bat dituzten arren oraindik izen aproposik ez dute aurkitu.

Honelako taberna bat zabaltzeko esperentzia oso garrantzitsua dela diote beste edozein gauzatarako bezala.

Baimen guztiak lortuta dituzten arren, garrantzitsuena falta zaie, zabaltzekoa.

Laneratze Plana jarriko da martxan Deba Garaian

Maiatzetik aurrera Laneratze Plana jarriko da martxan Deba Garaian. Plan honek atal desberdinak ditu eta hona hemen horietako batzuk:

- **Lantegi eskola:** INEMen apuntatuta dauden 56 langabeturi zuzendua dago. Bi urtetakoa izango da eta honako lau tailerretan banatua egongo da: **Igeltserotza, Iturgintza, Elektrizitatea eta Zurgintza (harotza)**. Prestakuntzarik ez duten eta lanmerkatuan sartzeko zailtasunak dituzten 18 eta 25 urte bitarteko gazteei zuzendutako programa da. Arrasaten emango da. Deialdia maiatzean egingo da eta 120 pertsona inguru apuntatu ahal izango dira.

- **Lanbide Etxea:** 30 emakumeri zuzendua dago eta urtebete iraungo du. **Nekazalturismoa, lorazaintza eta sare lokalei** buruzko ikastaroak emango dira. Programa hau Oñatin emango da eta INEMen eman behar da izena.

- **Lanbide hastapenak:** Urtebete iraungo duten bi ikastaro emango dira eta 100 ikasle izango dira guztira. 16tik 17urte bitartera dituzten gazteei zuzendua egongo da. Ikastaro hau, Arrasaten emango da, irailan hasiz.

EROSKI KONSUM

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8
Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g
Tfnoa: 79 16 05

ARETXABALETA

BEIRALAN



KRISTALDEGIA

Loramendi 10 ☎ 79 81 78
Aretxabaleta

BITXITEGIA

MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA

Otalora kalea
Eliza aurrean
Tfnoa: 77 13 57

Martín

Bere bezeroen zerbitzuan

Mitarte, 16
Tfnoa: 79 01 72

TOLDOS LETE

Kataide Poligonoa
14 Pabiloia ☎ 79 23 83
ARRASATE

CONSTRULAN
ARQUERO ANAIK

Indusketa eta
etxagintza lanak

Basabe Poligonoa, 4 EO-11
Tfno eta faxa: 79 01 51
ARETXABALETA

INDUSTRIA
HORNIKUNTZAK
URKULU, S.A.

Mitarte, 23
Tfnoa: 79 96 66

Arkarazon proiektil bat aurkitu dute



Gaizka, Igor eta Jontxu, proiektila eskuan dutela, aurkitu zuten haritzaren aurrean

Argazkian agertzen diren Gaizka Berasaluzek, Igor Olalde, Jontxu Berasaluzek eta hauez gain Maite Galdosek proiektil bat aurkitu zuten Arkarazon.

Proiektila apirilaren 2an jolasten ari zirenean aurkitu zuten. Gainera ez zegoen nolanhiko lekuan, haritz baten gainean aurkitu zuten eta. Proiek-

tila noizkoa den ez dago ziur jakiterik baina Gerra Zibilekoa izan daiteke. Baliteke proiektila norbaitek han utzitakoa izatea, arraroa bait da haritz gainean jauzi izatea.

Proiektila herdoilduta dago. 20 zmtako luzera du eta 6ko diametroa, sei kilo pisatuz.

Dagoeneko ertzainei parte emango zieten.

Bainuetxeko urets iturria berreskuratu guran

Bainuetxeko parke eta lorategia zenaren albo batean dago sufredun ur-zorroztada botatzen duen iturria. Uretsezko iturria ere deitu izan zaio. Oraindik ere, usain sulfhidriko haundia botatzen du. Garai batean, gaixotasun desberdinak sendatzeko erabili izan zen. Atxabaltar askok bueltatxo bat egina izango du iturrira bere botilatxoan ura hartzeko.

Denborarekin bazterturik gelditu da eta Udalak iturria eta bere ingurua berreskuratu guran proiektu bat bultzatu du.

Proiektu horren lehen faseko obrak egin dira. Iturriaren ingurua garbitu da eta gerora iturria inguratzen duten hormak garbitu gura dira.

Laster Urets Iturburua jarriko duen seinalea ipiniko da iturriaren ondoan bertarako bidea adieraziko duena.



Uretsezko iturriaren ingurua garbitu da

JANTZI DENDA

ASENSIO

Mitarte Kalea, 12

Tel. 79 10 72

ARETXABAETA



GARAGE NORTE S.L.

Zerbitzu Ofiziala


Basabe Poligonoa, A-1-3

Tfnoak: 79 62 65 / 79 20 86

ARETXABAETA


Hauteskundeetarako hautagaien zerrendak

Aurtengo udal hauteskundeak maiatzaren 28an izango dira, beraz hilabete eskas gelditzen da. Esan beharra dago oraindik talde guztiek ez dutela aurkezpena publikoki egin, baina jadanik ezagutzen dira alderdi politiko guztien zerrendak. Hurrengo Aretxagazetan alderdi bakoitzaren azterketa sakonagoa joango da.



EA

- 1.- Adolfo Etxebarria
- 2.- Clemente Domingo
- 3.- Elena Vazquez
- 4.- Paulo Txintxurreta
- 5.- Mikel Lopez
- 6.- Lore Martinez
- 7.- Iñigo San Juan




HB

- 1.- Anjel Bergaretxe
- 2.- Luis Errasti
- 3.- Jesus Kortabarria
- 4.- Mikel Otero
- 5.- Alejandro Ulezia
- 6.- Itxaso Ojeda
- 7.- Julen Kobos




Ezker Batua

- 1.- Tomas Fernandez
- 2.- Jaime Mugika
- 3.- Juan Alkaide
- 4.- Juan Olivenza
- 5.- Maria Concepción Romano
- 6.- Maria Martin
- 7.- Jose Barquero Sanchez



PSE-EE

- 1.- Iñaki Pierrugues
- 2.- Lorenzo Fernandez
- 3.- Pablo Pavon
- 4.- Eneko Arrieta
- 5.- Elena Argiñano
- 6.- Jose Javier Iñiguez
- 7.- Javier Valle



EAJ-PNV

- 1.- Juan Antonio Rodrigex (Independentea)
- 2.- Koldo Azkoitia (EAJ-PNV)
- 3.- Jesus Akizu (Independentea)
- 4.- Imanol Aizpurua (Independentea)
- 5.- Jesus Mari Herrasti (EAJ-PNV)
- 6.- Aitor Gabilondo (EAJ-PNV)
- 7.- Isidoro Garciaetxabe (Independentea)

**Jauregi
Okindegia**

Otalora, 10
Aretxabaleta

**MENDIOLA
ERRETEGIA**
Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita
Tfnoa: 71 43 45
ESKORIATZA

ANGELINES
Autozerbitzua

Mitarte, 16 ☎ 79 61 42

**IZOTZ
TABERNA**

Mitarte, 16
☎ 79 73 65

Euskarazko lehen liburua disketean

EUSKARAZ idatziriko lehen liburua, "Linguae Vasconum Primitiae", berbio konputertzatua kaleratu du Jakintza Baitha elkarteak. Axularren "Gero" liburuarekin eman zioten hasiera egitasmo honi, eta aurrerantzean, klasikoen alorreko beste zenbait testu diskete bidez zabaltzeko asmoa agertu dute elkarte-koek. 1545ean argitaratu zen Bernard Etxeparek izkiriaturiko "Linguae Vasconum Primitiae", eta 15 poema jasotzen ditu, erlijiozkoak lehengo biak, amodiozkoak segidako hamarrak, idazleak kartzelan egindako tardez ari den poema autobiografikoa da hurrengoa, eta azken biak euskararen aldekoak, liburua euskaraz argitaratzeak Etxepareri sortu zion poza adierazten dutenak.

Argia
(95-04-16)

Famili Zuzenbideko formularioak euskaraz

Gipuzkoako Abokatuen Kolegioko Euskara batzordeak Famili Zuzenbideko Formulazioak jasotzen dituzten liburua eta disketea argitaratu ditu. Lan honetan banaketa, dibortzio, ezkontza zibilaren eta kanonikoaren deuseztasun zein adiskidetze kasuetan epaitegietan erabiltzen diren 124 formulario jaso dira, euskaraz eta gaztelaniaz. UZEIk euskeratua, Luis Aldayk zuzendu du.

Euskararen berripapera
1995eko apirila

Datorren hilabetean Leintz udal-euskaltegiak bere 10. urteurrena ospatuko du. Hori dela eta maiatzaren 22tik 26ra bitartean zenbait ekintza antolatuko ditugu. Aukera polita izango dugu, beraz, bertan egondako eta gauden ikas-irakasleak ostera elkartzeko.

Aretxabaletako eta Eskoriatzako udalek mankomunaturik sortu zuten euskaltegi honek, herritarrak euskalduntze-alfabetatzea izan du eta du helburu.

Leintz udal euskaltegiko 10. urteurrena




Gurutze Larrañaga

Euskaltegiko irakaslea

Irakaslegoari dagokionez, 10 urte hauetan emandako aldaketatxoaren artean honako hauek aipa genitzake.

Orain arte hurbildu zaigun ikaslegoaren gehiengoa atxabaltarra izan bada ere, badirudi azken urteotan joera hau aldatuz doala, Eskoriatzatik datorkigun ikasle kopurua urtetik urtera handiagoa delarik.

Hau ez da, ordea, ikaslegoari begira eman den aldaketa bakarra; aipatzekoa eta poztekoa ere bada gero eta jende gutxiagok ematen duela izena hasierako mailan eta, honek, euskaraz ezertxo ere ez dakien jende gutxi dagoela, pentsatzera eramanez gaitzake. Hala ere, dena ez dago eginda, jorratu beharreko bidea luzea da eta lan hau guztion esku dago.



LOGOPEDIA
ZENTRUA

ARRASATE

HIZKUNTZ-ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR-IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3-1 Esk
Tfnoa: 79 79 46 ARRASATE

EXPRESS AKEITEGIA

Santa Kurtz, 16
Tfnoa: 79 23 43

GATZAGAn,

ERDI ERDIAN

ZUHAITZ jatetxea



ZENTRO
PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak

Erreabilitazio funtzionala

Logopedia

Laguntza terapia

Ignazio Zuloaga kalea, 10
79 48 77 ARRASATE

Jasone Garcia-Etxabe: "Negurako ludoteka beharrezkoa dela uste dut"

Hasiera batetan ludoteka 3 hilabetetarako zabaldu zen, haurren erantzuna jasoteko. Ludotekaren arrakasta ikusirik LORAMENDI K.E.k Aste Santua arte zabalik mantentzea erabaki zuen, beraz, ludoteka joan zen apirilaren 12an itxi zen.

Ludotekaren zerbitzua baloratzeko orduan, esan beharra dago, herri mailan garrantzitsua dela horrelako toki bat izatea. "Ludoteka ez da bakarrik haurrak jolastera etortzen diren toki bat, bertan euren heziketarako garrantzitsuak diren hainbat puntu sakontzeko aukera dute". Umeak gehienbat 6etatik aurrera joaten dira ludotekara, ordutegi erabiliena 6etatik 8etara bitarteko gertatuz.

Ludotekan 70 joku desberdin daude. Gehien erabiltzen direnak aztertzerako orduan, adinen arteko sailkapena egin beharra dago, horrela 5 urtetatik 7ra bitartekoek joku sinbolikoak eta eraikigarriak erabiltzen dituzte. 8tik 10era bitartekoek artean, bilarra, taldeko jokuak eta azkartasuna lantzekoak dira erabilienak. Azkenik 11 urtetik 12ra bitartekoek talde jokuak lantzen dituzte gehienbat.

"Umeak ez daude ludoteka iztearen alde. Bertan oso ondo pasatzen dute. Jokuekin jolasteaz gain lagun

Gure herrian lau hilabetetan zabalik egon den ludoteka itxi egin dute. Jasone Garcia-Etxabe, 23 urteko atxabaltarra, aritu da bertan lanean. Ludoteka berriz zabalduko dela esan du.



berriak egiteko aukera izan dute. Honetaz gain ziur nago haurrek faltan botako dutela ludoteka. Orain uda eta eguraldi ona dator eta umeez kanpoan jolastu dezakete. Hala ere nire ustez irailetik maiatzera bitartean edo beharrezkoa da honelako toki bat zabalik izatea" diozku Jasonek.

"Haurren gurasoei dagokienez, gehiengoak, denak ez esatearren ludoteka zabalik mantentzearen alde daude. Martxo inguruan galdera batzuk pasa zitzaizen gurasoei euren iritzia ezagutzeko eta ludotekaren oso aldeko azaldu ziren.

Aurrera begira, ludoteka berriz ere zabaltzeko asmoa dago. "Alde batetik beharrezkoa iruditzen zaigu eta bestalde LORAMENDI K.E. kook helburu batzuk finkatu genituen eta hain denbora laburrean ezin izan ditugu guztiak bete. Gure helburu nagusia haurren artean jokuen bitartez euskeraren erabilera bultzatzea da. Nolabait helburu hau

aurrera eraman ahal izan dugu baina oraindik gehiago sakondu daiteke".

Hurrengo ludotekarako aldaketa haundiena jokuetan egongo da. Orain arte izan diren joku batzuk mantenduko dira baina joku berriak ekartzea beharrezkoa dela iruditzen zaie.

**JOSU
HARATEGIA**

URDAITEGIA-
GOZOTEGIA
KROASANTEGIA
"JANARI
PRESTATUAK"

**ARETXABALETA
ITURGINTZA**

Durana, 16
Tfnoa: 79 17 53
ARETXABALETA

Amaia-Berri, S.L

Gasa- Klimatizazioa-Isurkor Teknologia

Otalora, 18 behea
Tfno-Faxa: 77 06 49 ARETXABALETA

**Artano
Taberna**

Herriko Enparantza
ARETXABALETA

FOTO

UrKiola

Tfnoa: 79 39 20
ARETXABALETA



KELER



El León

FELIX ARRESE

Edari Banatzailea

Industrialdean
Tfnoa: 79 60 65

Maiatzaren lehena, langilearen eguna

Maiatzaren lehena data sinbolikoa eta historikoa da. 109 urte igaro dira garai hartako langile erakundeek langilearen eguna izendatu zutenetik. Bere jatorria, San Francisco herrian, langileek 8 ordutako lanaldia eskatzearen, poliziek hil zituzten langileen oroitzapenean dago.

Garai hartako gizon emakume eta haurren lan egoera oso txarra zen. Eguneko lanaldia 15 eta 16 ordutakoa izaten zuten. Egoera hauen kontra manifestazio eta grebak egin ziren, lehen esan bezala, 8 ordutako lanaldia aldarrikatuz. (8 ordutako lanaldia, 8 ordutako atsedenaldea eta 8 ordutako heziketa).

Hasiera batetan Maiatzaren lehena ez zen jai eguna, langileek lana utzi eta greba egiten zuten eguna baizik. Espainian Frankoren garaian ezarri zen jai egun bezala.



Sindikatu guztiek "Industrializazioa eta Enplegua" lemapean egindako manifestazioan

"Langilearen eguna" deitu dena.

Gaur egun 109 urte geroago, krisi ekonomikoa murgilduta gaude. Krisi egoera hau gainditzekotan "langile finkoa" izatea historia bihurtu da, eta ia inon galdetu ere ez da egiten "zure lanbidea?"

Gaur egungo lan eskaziak eta langabeziak, lana daukatenen lanbaldintzak estutu eta larriagoak bihurtu ditu.

Sindikalismoa

Badirudi ez dela sindikatuentzat garairik onena. Langabezia handia dagoenez enpresariak egoerataz baliatzen dira langileei ahalik eta exigentzia estuenak behin-behineko ezarri eta horretan usteko. Langile bakoitzak bere

egoerari bilatzen dio irteera, albokoak berea bilatu beharko du, mesfidantza bitarteko jarrita. Gizartean gero eta insolidaritate haundiagoa dago; honek sindikatuen nahiak, hau da, mobilizazioa, langileen elkartasuna eta errebindikazioak oztokatzen ditu. Egoera latz honi aurre egitea ez da erraza eta horregatik gero eta arruntagoa da sindikatuen arteko elkarren arteko gerturaketa ahaleginak nahiz eta beti horrelako itxurarik ez kaleratu. Aurtengo maiatzaren leheneko ere bi deialdi izango ditugu. Lehenik, UGT eta CCOO sindikatuen artean Donostian egingo dena, eta bigarrenik bi sindikatu abertzaleen artekoa, ELA eta LABek elkarrekin egingo dutena. Azken hau Bilbon izango da.




JOSE GATO
Azbeke sindikalista
(ELA)

“Gizarte kapitalista honek indibidualismoa bultzatzen du. Bidali gura duen mezua inungo taldeekin ez asoziatzea da. Gure ustez indibidualismo hau apurtu beharra dago eta hor lan egin behar dugu sindikatuok. Historiako errurik haundiena, pertsonok norbaitek le-

geak bihotz onakin egiten dituela uste izatea da. Azken finean bizitza honek interesen arabera funtzionatzen du eta indar gehien jartzen duenak lortuko ditu interes hoiek.

Sindikatuok badaukagu zeresanik maiatzaren lehen egun honetan. Guretzat bi zentzu ditu egun honek, alde batetik erreibindikazio egun bat moduan ulertzen dugu eta bestetik militanteok biltzen garen egun bat bezala, hau da jai egun bat bezala.

Egun honetan, gaurregun dagoen fraude fiskala, E.T.T. delakoaren bidezko kontratazioa eta INEM Madrildik zuzendu beharrean Euskadira etor dadila aldarrikatuko dugu.”



JUAN RAMON GARAI
Deba Garaiko Langile
Komisioetako

“Langabeziak, behin-behineko lanpostuak eta gero eta ekonomia murgilduagoak, lan egiten dute-mentzat gero eta lan-baldintza txarragoak dakar-tza.

Horrez gain enplegu suntsipena, lantegi barnean inolako oposiziorik gabe, aurre-jubilazioaren

bidez egunetik egunera haunditzen doa. Enplegu berriak gutxi sortzen dira. Lanpostu berriak sortzea baino askoz ere errazagoa eta irrazionalagoa da ehunkada milioi erabiltzea lanpostuak suntsitzeko lanpostuak mantendu baino. Bestetik, lantegi askotan azken hilabeteetan lan gehiago dagoenez langile asko ehunkada ordu extra mordo sartzan ari da.

Horregatik, maiatzaren 1ean, langileok elkartasuna aldarrikatu behar dugu. Beharrezkoak dira mobilizazio solidarioak berdintasunaren bidea jorratzeko, langabezia lana eta aberastasuna berdin eta egoki ez banatzearen ondorioa dalako.”



JESUS ANGEL BAZTERRA

LAB-eko liberatua

“Azken urteotan egon diren erreforma laboral eta sozialak kontutan hartzen baditugu garbi dago patronatuak eta gobernua sindikatuen kontra gogor ari direla, eta batez ere LABen proposamenen aurka.

Horregatik, maiatza lehenaren helburua egun

erreibindikatio bat egitea da. Horrela langileon indarra bizirik dagoela adierazteko.

Aurten Bilbon egingo dugun manifestazio batekin ospatu nahi dugu maiatzaren lehena.

Gure lema ondoren goa izango da: **ORGANIZAZIOA-BORROKA-MUGIMENDUA: LANGILEOK ETORKIZUNA ERAIKITZEN.** Bere edukina ondorengoa da:

- Lan erlazioetarako Euskal marco propioa izatea.
- Enplegua banatuko duen politika.
- Politika -fiskal propio bat
- Behin-behineko kontratuaren kontra.
- Espazio sozio-ekonomiko baten alde.”



ALFONSO ALVAREZ

Cerrajera Valle Leniz-eko delegatua (UGT)

“Nire ustetan sindikatuek momentu honetan ez dute garai baten zuten indarra. Honen arrazoietariko bat behin-behineko enpleguan egon daiteke. Lan kontratu finko bat ez izatean jendea ez da sindikatuetara afiliatzen. “Kontrato basurari” buruzko dekretua esaterako,

langileen eta langabetuen aurka doa. Hala ere manifestazioetan beti langileak egoten gara. Oso zaila da, langabetuek mugimenduan sartzea. Agian gure errua da, beraien onurarako ere badiren ekintzek garbi azaldu ez diegulako. Langabetuen alde egiten diren grebetan ere azken hauek ez dute jarrerarik azaltzen.

Esan nahiko nuke, maiatzaren lehena langileok bateratuta egoteko eguna bezala ulertu behar dela. Langile guztiek egun hau erreibindikazio eta jai egun bezala ulertu behar-ko lukete. Guk esaterako Donostian egingo dugu manifestazioa eta ondoren bazkaria izango dugu, festa modura ospatzeko.”

Herriarteko pelota torneoa


Pasatu den domekan, apirilaren 23an, herriarteko pelota torneoa ikusi ahal izan genuen Iturrigorri frontoian.

Jubenil, infantil eta senior mailako pelota partiduak jokatu ziren. Atxabaltarrek, Oiartzungo pelotarien kontra lehiatu zituzten indarrak eta esan behar emaitza positiboak lortu zituztela. Bi partidu irabazi eta bata galdu egin zuten, hortaz, 2-1eko emaitza lortuz. Hiru partiduen emaitzak ondorengoak izan ziren:

Infantil mailan:	Bartolome-Lasagabaster	18	Iraztorza-Muñoz	9
Jubenil mailan:	Atxa-Uriarte	6	Treku-Elizegi	22
Senior mailan:	Errasti anaiak	22	Deskarga-Elizegi	3

Orain, bueltako partidua jokatzeari gelditzen zaie Oiartzunen; hemen osterara ere irabazi ez-kero torneoan aurrera jarraituko dute.

Ibon eta Unai Errasti erraz nagusitu zitzaizkien Oiartzungo Deskarga eta Elizegi pelotariei. Partidu motza izan zen kontrarioek 3 tantu besterik ez zituzten lortu eta.



FUTBOL EMAITZAK

PREFERENTE

LAZKAO-ARETXABALETAK 2-2

1º ERREGIONALA

ARETXABALETAK-HAMAIIKA BAT 2-6

1º JUBENILA II

ARETXABALETAK-MICHELIN 3-1

INFANTIL

SORALUCE-ARETXABALETAK 2-6

NESKAK

BERGARA-ARETXABALETAK 1-0

URBALTZ



TABERNA

Mitarte 21, behea

Tfnoa: 79 79 79

ARETXABALETAK



ARLUTZ TABERNA

Mitarte, 16 ARETXABALETAK

Tfnoa: 79 32 34

J. ALTUNA

Zurgindegia

Sukalderako
altzaria

Basabe Poligonoa, A-2-3
Tfnoa: 79 72 55 Aretxabaleta

GEMES

EPILATERM

Min gabeko depilazioa

Durana, 40-2 Tfnoa: 79 99 18

Aretxabaleta

Epelde

- Estudioa
- Ezkontza-erreportaia
- Bideoa
- Argazkiak

Iturriotz, 24

Tfnoa: 79 19 71

OSKAR GARAJEA

Basabe Poligonoa, A-2-4


Tfnoa: 79 98 74

ARETXABALETAK

GUREA

TABERNA JATETXEA

Durana Kalea
Tfnoa: 79 20 64



BASTER-ALDE JATETXEA

SASOIKO JAKIAK

GIRO ONENEAN

Galartza auzoa Tfnoa: 79 24 58 ARETXABALETAK

MAITE

ILEAPAINDEGIA

Sarasate, 1 Tfnoa: 79 59 05

ARETXABALETAK

Guenetxeak bi garaipen lortu ditu Portugalen

Asier Guenetxeak bi garaipen lortu ditu Portugalen Euskadi taldearekin. Lehena apirilaren 22an sprintean lortu zuen Algarbeko itzuliaren 4. etapan, Vila Real de Santo Antonio eta Tavira arteko ibilbidean; guztira 104 kmtako itzulian.

Bigarren garaipena berriz itzuliaren azken etapan lortu zuen.

Zorionak Asier!!!

Donostia 97 klasika Atxabaltatik pasatu zen




Txirrindulariak atxabaltatik pasatzen ziren bitartean

200 txirrindularik baino gehiagok parte hartu zuen, aurreko asteburuan Arrasaten burutu zen Donostia-97 klasika-n. Itzuliak 113 Km. izan zituen eta Atxabaltatik hiru aldiz pasatu zen.

Mikel Roldanek Euskadiko selekzioaz parte hartu zuen sei lagunek osatutako taldearekin. Mikeli laguntzaile lanak egitea tokatu zitzaion eta esan beharra dago taldeko besteekin batera lan bikaina egin zuela, taldeko Ivan Maio bigarren postuan gelditu zen eta.

Mikel pozik azaldu zen egin zuen lanaz, "karrera oso gogorra izan da eta uste dut bukatzeaz nahiko egin dudala".

Mikel Roldan, "aurreneko postuetan ibiltzea da nire aurtengo helburua"



Mikelek 17 urte ditu. Jubeniletako lehen urtea Fagor taldean korritzen du. Zortzi urte darama txirrindularitza eta afizioa familiatik datorkiola diozku. Momentuz aurtengo tenporada ondo doakiola dio.

• Aurtengo tenporada nola doakizu?

Ondo. Zazpi karrera eduki ditugu. Erlojuaren kontrako karrera bat irabazi dut; bigarren postuan ere gelditu naiz baten eta bi aldiz hirugarren postua lortu dut.

• Ziklo-krosean eta karreteran korritzen duzu...

Ziklo-krosa geldo ez egotearren eta karreterarako prestatzearren egiten dut. Zein gustatzen zaizu gehiago? Karreteran korritzea.

• Fisikoki nola zaude?

Orain esateko topera nago eta ea horrela mantentzen naizen.

• Nola entrenatzen duzu?

Entrenatzaileak astero orri bat ematen digu nola entrenatu esanaz, zenbat Km., zer abiaduran, e.a.

• Zein da zure helburua aurtengo tenporadarako?

Orain bezala jarraitzea eta ahalik eta karrera gehien irabaztea.

• Jan aldetik asko zaindu behar da?

Ez, danetik jan behar da, txarrikeria gutxi.

• Arriskutsua dela uste duzu txirrindularitza?

Karrerak ez dira arriskutsuak. Entrenamenduak arrikutsuagoak izan daitezke gehienbat trafikoagatik.

• Txirrindularitza gehien gustatzen zaizuna?

Bizikletan ibiltzea asko gustatzen zait. Hortik aparte noski irabaztea.

• Eta gutxien gustatzen zaizuna?

Eguraldi txarrak askotan korritzeko gogoak kentzen dizu. Honez gain erorketak.


SHOT! grabaketak S.L.
Araba Etorbidea, 3-2. solairua

SHOT!
grabaciones

Eskatu Pabiloia
☎ 943-79 37 51

ARRASATE

Gipuzkoa



EGUZKI GRAF

Aldizkariak

Inpresoak

Bulegoko materialak

Aretxabaletako Industrialdea, F-0-4 ARETXABALETA
Tfnoa: 943- 79 18 44

Faxa: 943- 79 29 41

LORATEGIAN IKASTEN

Ingurune fisiko eta soziala



Bertan honako **helburu** hauek lortu dira:

- Lorategiko loreen izenak ezagutu
- Loreak zaintzeko oinarrietaz jabetu.
- Lorategirako tresneria ezagutu eta manipulatzeari
- Lorategiarekiko errespetu eta jarrera positiboa izatea



Azken ekintza bezala, adierazpena, teknika desberdinak erabiliz egin da: marrazkia, estanpaketa, modelaketa, collage... Eta hona hemen guzti honen emaitza.

“Negua joan da, gaur udaberri; hoa egun beltza, ator egueldi!”

Haurrak berak bizi eta sentitu dezakeen errealtatea ezagutzeko eta ulertzeko da eremu honen helburu nagusia.

SANTA RITA Ikastetxeko haurrek esperientzia desberdinen bidez lantzen dituzte eremu honetako helburuak. Udaberria gaiari lotuta egun hauetan **“LORATEGIAN IKASTEN”** esperientzia burutu dute.

Haurrek burutu dituzten ekintzak:

- Landare desberdinak landatu
- Ikastetxeko lorategiko loreak ureztatu
- Lurra osasundu
- Tresneria manipulatu
- Esperientziaren balorazioa



MEMESA S.L.

Santa Kurtz, 25-27
Tfnoa: 77 11 75
ARETXABALETAKO

PAGALDAI

Opari denda

Durana, 33 ☎ 79 10 14
ARETXABALETAKO

Hortz klinika

Imanol Arrazola Otxoa
Mediku-Odontologoa
Col. 405


Otalora 18 - 1.º D
20.550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)
Tf: 79 93 55



Zenbaki
Aholkularitza

Basabe Industrialdea
Aretxabaleta

Tfnoak: 79 88 75
79 75 99



ARGI-PLASTIC

Leihoak egiten dira

Axeri,3 ARRASATE
Tfnoa: 77 11 30



Kokapen/Denbora ardatzen arabera, nola erantzuten dio gizarte batek, eguneroko bizi kezkei (hizkuntza, lana, jaia, jana, dantza...)?

Bigarren Errepublika garaian (1931-1936) euskal gizartea urgaineko bitsek zeramatzen Kultur Pizkunde baten murgilduta bizi zen "Euskal Weltanschauung" hori berreskuratu nahiean. Mugimendu guzti hori batzoki inguruetan bultzatu zen, eta Atxabaltako euskaldunak guttiago ez zirenez, euskal dantza taldea antolatzea erabaki zuten. Neska-mutiko talde honek dantzatik aparte, euskal abesti, eta euskal lan ohiturak ere ikasi eta erakusten zituen. Taldean hamalau urte egin arte egoten ziren, eta entsaioak, jakin izan dugunez, kaminerokuen egiten zituzten.

Argazkian agertzen den taldea 1933-34 garaikoa da. Esan digutenez, Korueta/Azatzara doan kaminuaren inaugurazio egunean Koruetako plazan dantzan egin zuten. Baita liñoaren inguruan egiten ziren lan erakusketa ere (tranga, txarrantxa, gorua,...) Beste behin Arrasateko batzokia inauguratu zenean ere, bertan dantzan egin zuten Manuel Irujo jaunaren aurrean, honek emandako mitina entzun ondoren. 1935. urtean Bedoñan, Loramendi, atxabaltar poeta zenari, eskaini zitzaion omenaldian ere parte hartu zuten.

Irudiko batzuk, zoritxarrez, joan ziren, beste batzuren arintasunak asentatu dira, baina gustoz ekarriko dituzte garai haiek euren gomutara.

Beheko lerroan: Arantza Galdos, Maritere Antxia, (ezezaguna), Mila Urreta, Marisol Altuna, Konsuelo Olabe, Nati Amuriza, (ezezaguna), Albina Lasagabaster.

Bigarren lerroan: Ramon Antxia, Duni Zuazabeitia, Espe Larrinaga, Mari Kristina Peña, Karmen Leanizbarrutia, Pakita Azkarretazabal, Juli Unamuno, Alberto Oianguren, Maritere Ariño, Juanito Urreta.

Laugarren lerroan: Joxe Lizarralde, Manuel Arkauz, Jesus Alberdi, Lukas Iturbe (txistularia), (ezezaguna), (ezezaguna), (ezezaguna), Angel Gabilondo.

Bostgarren lerroan: Zeferino Agiriano, Rikardo Galdos, Boni Alberdi, Manuel Beitia, Felix Azkarretazabal, Joxe Peña, eta eskinako gizona Roman Olabe.

Pilar Azkarretazabal, Fermina Gabilondo eta Kreszen Lizarralde ere hor daude.

*Iñaki Urreta Leturiondo
Aitor Antxia Leturia*

Opor santuak



J.J. Aretxaga

Aste Santua bukatu da ala Aste Santuak bukatu dira, horra hor dilema. Oporrak aldareetara jaso ditugunetik ez dago jakiterik. Lehenago aste santu bakarra geneukan bahintzat. Dena dela, ditzosozko opor santuak joan dira. Zaharrak joan barriak etorriko diren esperantzan, betiko kontua.

Aratz atzeratuen aldeko elkartean aldaketak egon dira. Orain arte **Adolfo Etxebarria** izan da lehendakaria, baina Adolfo beste ardura batzuk hartu dituela eta, **Jokin Antxiari** pasatu dio lehendakari kargua. Hala ta be, seguru nago lehenago moduan jarraituko dituela elkartearen gorabeherak.

Hasieran lehenagoko kontuak aitatu ditugu. Auzolana usuario sanao izan da betik, bere funtzioa beteten zuena. Horreik ohiturok ez dira zorionez galdu. Datorren zapatuan **apotzarrak** San Bernabe ermita konponketan hasiko dira

auzolanean. Euren lehenengo asmoa teilatua ondo ipintea da eta gero poliki-poliki dena barriztuaz eta txukunduaz fatea. Animo ba.

Animoak emuten hasi garenez, jarraitu dezagun horrela. Lehenago egunean **Andoni Zubizarretak** bostehungarren partidua jokatu zuen lehenengo dibisioan, eta eguaztenean ehungarren partidua selekzioarekin. Ehun eta bostehun numero handiak dira, bera den modukoa, zorionak.

Eta zorionak Hirugarren Mundu taldekoendako. Indiako Unai proiektua, ia lau urtean lanean gogor ibilita gero, bukatutzat eman da. Baina ez daukate geldi egoteko asmorik. Orain beste proiektu bati ekin behar diote. Proiektu hori datozen egunetan aurkeztuko digute, baina badakigu Afrika aldean izango dela. Proiektua lantzeko atxabaltar baten laguntza izan dute, hango barri ondo daki eta **Damaso Zuazuak**.

Aurreko biak herritik joandakoak ziren, baina atxabaltara datozenak be badira. **Rakel Lizarraga** nafarra da, Sakanako Arbizu herri txikikoa. Kultur teknikaria izateko ikasketak egiten dabil Almenen. Horretarako kultur elkarteak barrutik ezagutzea inportantea izaten da. Rakel Loramendin egiten dabil praktikak.

A R E T X A Z O K A

LANA

- Umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko esperientziadun neska prest dago. Deitu, 79 96 10 telefonora. (Maritxu)

- Pertsona euskalduna behar da umeak zaintzeko. Harremanetarako telefonoa: 77 13 30

ETXEBIZITZA

- Eskoriatza erdian pisua alokatzen da. Sukaldea, bainu gela eta komuna berriztu eta hornituak ditu. Honez gain 3 logela, komedorea, terraza eder bat eta garajea ditu. Harremanetarako deitu: 71 43 51 telefonora gaueko 9etatik 10etara.

- Garaje bat alokatzen da, Mitarte 11 kalean. Interesatuak deitu 79 47 62 telefonora.

- Pisu bat salgai dago Bedarreta auzoan eta garaje bat Murubiden.. Deitu: 79 80 27 telefonora, eguerdiko ordu 1etatik ordubietara bitartean edo arratsaldeko 7etatik aurrera.

- 82 m²-ko lokala salgai dago. Hiru horma kaleruntza begira ditu eta ez du zutaberik. Lokala Loramendi 10 kalean dago. Telefonoa: 79 01 17

SALMENTA

- Sukaldeko altzariak (ekonomika eta guzti) eta jangelako altzariak salgai. Egoera onean eta merke.

79 01 66 (eguerdian eta gauez, Arantzazu)



Lore Martinez

“Txikitatik gustatu izan zait futbolean jokatzea”



Lore Martinez

Lorek UDAko nesken taldean jokatu du. Taldea sortu zenetik, hau da, duela bost urte hasi zen futbol taldean entrenatzen. Betidanik gustatu izan zaio futbola. “Almenen ikasten nabilela mutilekin jokatzeko genuen futboleantzat”.

Momentu honetan informatikako ikasketak egiten ari da, Bilbon.

- **Beti izan duzu futbolerako zaletasuna?**
Bai, txikitatik.
- **Zergatik futbola eta ez beste kirolen bat?**
Eskubaloian ere jokatu izan dut, baina futbolak zerbait berezia dauka.
- **Entrenatzaile moduan neska ala mutila nahiago duzu?**
Berdin da neska edo mutila, eginbeharrekoa ondo egiten duen bitartean. Hala ere, esan beharra daukat Xabinek duen meritua jende gutxik daukala.
- **Oztopo handia da futbola parrandak botatzeko?**
Ez. Hasi ginenean hamabietarako etxera joaten ginen baina aguro konturatu ginen farrak bota arren berdin berdin irabazten genuela.
- **Zenbat gol sartu dituzu orain arte?**
Hiru
- **Harezko zelaia ala bedarrezkoa nahiago?**
Belarrezkoa, baina ez belar artifizialezkoa.
- **Fraka motzak ala fraka luzeak nahiago futbolean jokatzeko?**
Parra.
- **Zer postutan jokatu duzu?**
Defentsan eta erdialdean.
- **Mutilak belarritako ala belarritako gabe?**
Ez naiz belarritakoetan fijas.
- **Bertsu saioa edo rock kontzertua nahiago duzu?**
Giro desberdinetakoak dira baina biak ditut gogoko.
- **Mutil batekin ligatzeko taktikarik egokiena?**
Neuk baneki...
- **Zer koloretako kotxea erosiko zenuke?**
Beltza.
- **Zein da zuretzat ume kopuru ideala?**
Lautik zortzira bitartekoa.
- **Entzutea ala hitzegitea nahiago?**
Lehenengo entzun eta gero hitzegin.
- **Zein da zure biziorik handiena?**
Zinera joatea eta toki berriak ezagutzeko.



Begoña Aranzeta da aurreko aleko irabazlea.

Zorionak!!!

Animatu zaitezte eta idatzi!!!!

ARETXAGAZETako bazkide batek, beste lagun batekin, **Ibarra Jatetxean** afaltzeko aukera izango du. Horretarako galdera ondo erantzun beharko duzu. **Erantzuna aldizkarian bertan aurkituko duzu, beraz adi adi irakurri ezazu.**

Erantzun guztiek ARETXAGAZETAren bulegoan (Kultur Etxean dagoen buzoian) egon beharko dute datorren eguna baino lehen.

IBARRA JATETXEA

Araba Ibilbidea, 29
Telefonoa (943) 79 69 86

ARETXABALETA 20550
(Gipuzkoa)

Non dauka maiatzaren lehenak bere jatorria?

a.- Sindikatuen arteko akordio baten ospaketan

b.- Iraultza industrialean

d.- Langile batzuren hilketan

Aurreko aleko erantzuna “3 seme-alaba” zen.


Erantzuna:

Izena:

Kalea:

Tfnoa:

BERGARA



Apirilak 27...

ERAKUSKETA

Apirilaren 27tik 30era bitartean helduentzako Txotxongiloen III. Nazioarteko Mostra izango da ikusgai.

ERAKUSKETA

Txotxongiloen erakusketa.

OÑATI



Apirilak 27...

OÑATZ DANTZA TALDEAREN XXV. urteurrena, hau dela eta programazio berezia antolatu da.

ERAKUSKETA

Apirilaren 22tik maiatzaren 7a bitartean Udaletxeko Aretxo Nagusian **AINTZINAKO BURUKOAK** (Tokadoak) XV. eta XVI. mendeetako (Tocados cunniformes) garaiko grabatuak, musika tresna, e.a. izango dira ikusgai.

ERAKUSKETA

Gaztelekuan **EUSKAL DANTZARIEN BILTZARRAK 25** urteotan eginiko lanen bilduma ikusgai izango da.

Apirilak 29, zapatua

MODELO PASEA

Gauetz Bidaurretan **DANTZA** eta **JANTZIEN** modelo pasea izango da ikusgai.

Maiatzak 6, zapatua

DANTZA JAIALDIA


Zarautzen ospaturiko lehen Euskal dantzarien Biltzarrean dantzaturiko talde eta dantzariak eskeiniko dute jaialdi hau, Oñatikoak barne.

Maiatzak 7, domeka

DANTZARI EGUNA

Dantzari egunean zazpi probintzietako 120 talde bilduko dira (5.500 dantzari inguru). Goizean kaleetan zehar ibilaldia egingo dute.

ARRASATE



Apirilak 27...

ARGAZKI ERAKUSKETA

Apirilaren 27tik maiatzaren 2ra arte **Jose Luis Feoren argazki erakusketa** izango da ikusgai Monterron Kultur Etxean.

Apirilak 28-maiatzak 3

ERAKUSKETA

"Corazon de Encina" k antolatutako Extremeñuen **ARTESANIA ERAKUSKETA** egongo da ikusgai, Monterron Kultur Etxean.

DANTZALDIA

Gaueko 11etatik goizaldera arte **DANTZALDIA HAITZAMA** Taldearekin.

Apirilak 28, eguakotxa

ANTZEZLANA

Mexikoko Saltimbanqui taldearen eskutik "Cuentos de tradición indígena" antzezlan egongo da ikusgai. Gaueko 10,30etan izango da Amaia Antzokian.

Apirilak 29, zapatua

KAFE ANTZERKIA

Frantziako Bululu Theatre-ren ó istorio: "El ciego", "El títtere" "La muerte", "El escultor", "El idiota" eta "Una historia de amor". Gaueko 10,30etan izango da Amaia Antzokian.

Apirilak 30, domeka

ZINE MARATOIA

Arratsaldeko 4,30etatik aurrera Amaia Antzokian **BELDURREZKO ZINE MARATOIA** izango da.

Apirilak 30, domeka

ZINE MARATOIA

Arratsaldeko 4,30etatik aurrera Amaia Antzokian **BELDURREZKO ZINE MARATOIA** izango da.

Abiadura haundiko trenaren Aurkako Asanbladak antolaturik apirilaren 28, 29 eta 30ean topaketak izango dira Arrasaten. Asteburu horretan mobilizazioak, mendi irteera, e.a. izango dira.

**ZARAIA
TABERNA**

Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan

MANTEKA ANAIK



**Lurrindegia
Opari-denda**

Mitarte, 18 ☎ 79 38 59

**Izozkiteki-Gozotegi
IZOZKITEGI**

Otalora, 11
Tfnoa: 79 93 58
ARETXABALETA

DON VIDEO

**PELIKULARIK
BERRIENAK**

Lezamako Merkatal Zentrua
ARETXABALETA

ARETXABAETA



XVII. OTALA-ZELAI
KROSS HERRIKOIA

URKULUKO URTEGIA

Maiatzaren 7an

Apirilak 28, 29, 30, 1

AKANPADA

Zarcia M. T. ak lau egunetarako irteera egingo du

Apirilak 30, domeka

U.D.A-Lagun Onak C.D.

Arratsaldeko 5etan izango da lbarran.

**AQUAGUN IKASTAROAREN
HASIERA**

Hilabete osoa iraungo du. Asteleheneretan, martizenetan, asteazkenetan eta eguaztenetan emango da. Prezioa 2000 pezetetako da sozioentzako eta 3000 pezetetako sozio ez direnentzako. Ikastaroaren ordutegia 4,30etatik 5eta ra eta 8etatik 8,30etara bitartekoa da.

Oharra: Lehengo egunean sarrera eta sesio guztiak dohain izango dira, aquagym-a zer den jakin nahi duten guztientzako. Apuntatzeko, bai sesio baterako edo bai hilabete osorako 79 64 61 telefonora deitu eta Pedrogatik galdetu.

IGERI IKASTAROA

Apuntatzeko epea zabalik dago. 20 sesio izango dira 45 minutukoak. Plazak betetakoan hasiera emango zaio. Ordaindu beharrekoa 4.500 pta. sozio direnentzat eta 6.000 pta. sozio ez direnentzat. Informazio gehiagorako deitu 79 64 61 telefonora eta Pedrogatik galdetu.

ARAUDIA

1.- Edozeinek parte har dezake.
2.- Honako sailkapena izango da: Gizakumeak: Juniors, Beteranoak eta Seniors.

Emakumezkoak: Absoluta.

3.- Gizonezko seniorrak bi buelta emango dituzte, eta juniors, beterano eta emakumeak buelta bakarra.

4.- Zelaikua baserrian emango zaio hasiera, goizeko hamaiketan eta leku berean amaituko da 12,30etan.

5.- Korrikalariak agerian eta bularrean eraman beharko dute zenbakia, bestela lasterketatik kanpo gelditzeko aukera dute.

6.- Dorsalaren banaketa toki berean egingo da 9,30etatik 10,30etara.

7.- Proba honek Gipuzkoako Herriko Krosseko 4. CHALLENGERako puntutuko du.

8.- Antolatzaileek ez dituzte beregain hartzen korrikalariak zein ikusle goari gerta dakizkiekeen kalteak.

Lasterketaren record-a, hau da, **Jose Apalanza 40' 59'**, gainditzen duenak 25.000 pztako saria izango du. Record-a pertsona batek baino gehiagok gaindituz gero, saria marka onena daukanarentzat izango da.

Partehartzaile guztiek lasterketako kamiseta bat jasoko dute.

Izen ematea: 300 pta.

Epea: Maiatzaren 2tik 6ra Kirol Etxean edo lasterketa hasi baino ordu t'erdia lehenago.

BEHARREZKO
TELEFONOAK



Aretxabaeta

• Udal Bulegoak	79 10 00
• Udaltzaingoa	77 45 67
• Euskaltegia	79 21 68
• Postetxea	79 28 31
• Kultur-Etxea	79 01 05
• Gizarte-Laguntzailea	79 10 00
• Kiroletxea	79 64 61
• Parrokia (Bulegoa)	79 18 42
• Basotxo	77 09 81
• Urats Gain	79 99 11
• Osasun zentroa	79 74 58
• Hezibide Elkartea	79 31 32
• Industrialdea	79 62 80
• Liburutegia	79 10 00
• Taxi Geltokia	79 22 33
• Loramendi K.E.	77 09 70
• Murruxiko M.E.	79 93 74
• Leniz Lanbide Esk.	79 79 00
• Kurtzebarri Eskola	79 00 49
• Pausoka Haur-Esk.	77 03 77
• Santa Rita Ikastetxea	79 17 00
• ALMEN	71 49 64
• Otalora	79 79 99

Udaltzaingoa

• Arrasate	79 14 39
• Bergara	76 14 69
• Eskoriatza	79 03 22
• Oñati	78 04 11

Denetarik

• Eskualde-Ospitala (Arrasate)	79 53 00
• Gurutze-Gorria (Bergara)	76 55 76
• Ertzaintza (Arrasate)	79 71 99
• Suhiltzaileak (Oñati)	79 28 00
• Renfe (Zumarraga)	72 15 15
• Renfe (Gasteiz)	23 20 30
• Pesa (Arrasate)	79 14 19
• Larrialdiak (Arrasate)	79 13 57
• Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzeen Elkartea	79 87 77
• Deba Garaiko Udal Elkartea	79 33 99
• SOS Deiak	088



**AZKENA
TABERNA**

Solohaundi, 8 ☎ 79 74 57



Basabe Poligonoa A-15
☎ 79 34 28
ARETXABAETA

ITURGINTZA



Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87



Zubiaga

**1960tik, gaur zuri bitxi eta erlojugintzan
katalogorik zabalena eskaintzeko**

ZUBIAGA

Kale barria, 18
20560 OÑATI
Tfnoa. 716074

bitxitegia

ZUBIAGA

Maalako Errabala, 5
20500 ARRASATE
Tfnoa. 791925-Faxa 791489